

EUROPAKO ESPALAZIO BIDEZKO NEUTROIEN ITURRIAREN ESPAINIA/ HORNITU ETA USTIATZEKO PARTZUERGOA (ESS BILBAO - EUR SOURCE BILBAO)



Sozietatearen izena

Consortio para la Construcción, Equipamiento y Explotación de la Sede Española de la Fuente Europea de Neutrones por Espalación.

IFK

G95455473

Izaera

Partzuergoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Mugatzailea.

Sorrera

2006ko abenduaren 22an, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu zuten bi administrazio publikoen arteko lankidetzaz ezartzeko, eta, horren ondorioz, Europako espalazio bidezko neutroien iturriaren proiektua (European Spallation Source, ESS) Euskadin eraiki eta zientifikoki ustiatzeko, [Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 5eko 10/2007 EBAZPENA](#) betez. Horrela, *“Espalazio bidezko Neutroien Europako Iturriaren proiektua prestatzeko faserako partzuergoa (ESS Bilbao partzuergoa)”* sortu zen, 2010eko abenduaren 31ra arteko indarraldiarekin, eta indarraldi hori luzatzeko aukerarekin.

Azkenean, 2009ko maiatzaren 28an, Europar Batasuneko kide diren herrialdeek erabaki eta konpromiso irmoa hartu zuten Europako espalazio bidezko Neutroien Iturria eratzeko proiektua Lunden (Suedia) egiteko.

2009ko ekainaren 10ean, akordio bat sinatu zuten Europako Espalazio bidezko Neutroien Iturriari dagokionez, Europako hegoaldean lehen aldiz instalazio handienetako bat ezartzeko, Europar Batasuneko Azpiegitura Zientifiko Handien maparen barruan. Akordio horri esker, Europako proiektu komuna ezarri zen, hau da, ESSren baterako hautagaitza bi egoitzarekin, bata Lunden eta bestea Bilbon, azken hori nagusiaren azpiegitura osagarri garrantzitsu gisa. Hala, partzuergoa eratu zen, batetik, Europako Espalazio bidezko Neutroien Iturriaren Espainiako egoitza gisa, eta, bestetik, partikulen azelerazioen esparruko zientzia eta teknologiaren garapenean espezializatutako ikerketa-zentro independente gisa, honako izen honekin: *“Europako Espalazio bidezko Neutroien Iturriaren Espainiako Egoitza eratzeko, hornitzeko eta ustiatzeko partzuergoa (ESS Bilbao partzuergoa)”*.

2010eko abenduaren 30ean, Estatuko Administrazio Orokorrek eta Euskal Autonomia Erkidegoak beste lankidetzaz-hitzarmen bat sinatu zuten, 2010eko abenduaren 31ra arte indarrean zegoena ordeztzeko, bi alderdien arteko lankidetzaz-esparrua ezartzeko Europako Espalazio bidezko Neutroien iturriaren Espainiako egoitza eratu, hornitu eta ustiatzeari dagokionez, eta hitzarmen hori argitaratu zen [Ikerketaren Estatu idazkaritzaren 2011ko urtarrilaren 5eko EBAZPENAREN](#) bidez.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

7219 Beste ikerketa eta garapen esperimental bat natura- eta teknika-zientzietan.

Sozietatearen helburua


[Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzarako Estatu Idazkaritzaren 2012ko martxoaren 1eko Ebazpenean](#) argitaratutako estatutu-aldaketan jasotzen denez, Partzuergoak bere Administrazioen arteko lankidetzaz zientifiko, ekonomiko, tekniko eta administratiboa kudeatu eta sustatu behar du, Europako Espazio bidezko Neutroien Iturriaren Espainiako egoitza ireki, hornitu eta ustiatzeko, edo, hala badagokio, azpiegitura zientifiko independente bat eraikitzeko, bi alderdiek sinatutako lankidetzaz-hitzarmenean ezarritakoaren arabera

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Erakundeen ekarpenak

EAEko Administrazio Orokorra	%50,00
Administrazio zentrala	%50,00



Batzorde Betearazlea

Partzuergoaren jardueren jarraipena egiteko eta jarduerak betetzeko, Batzorde Betearazle bat sortu da. Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Batzorde Betearazleko kideak:

Cristina Uriarte Toledo andrea	Presidentea. EAEko Administrazio Orokorra.
Carmen Vela andrea	Administrazio zentrala.
Arantza Tapia Otaegi andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
Estíbaliz Hernández Laviña andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
Itziar Alkorta Idiákez andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
M ^a Luisa Castaño Marin andrea	Administrazio zentrala.
Cayetano López Martínez jauna	Administrazio zentrala.
José Ignacio Doncel Morales jauna	Administrazio zentrala.

Ekitaldiko Aurrekontuen Likidazioa eta Urteko Kontuak

[Ekitaldiko urteko kontuak.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	46.170.595 €
Ondare garbia	12.022.268 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	6.416 €
Batez besteko langile-kopurua	50

Sozietatearen helbidea eta webgunea

Bizkaia Parke Teknologikoa, Laida Bidea, 201. eraikina -
4 atea - 48170 Zamudio (Bizkaia)

www.essbilbao.org